

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA JUSTICIA E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

RELACIONES INSTITUCIONALES Y
PORTAVOZ DEL GOBIERNO

ADMINISTRACION LOCAL

EDUCACION

SALUD

DESARROLLO RURAL Y MEDIO
AMBIENTEASUNTOS SOCIALES FAMILIA
JUVENTUD Y DEPORTE

CULTURA Y TURISMO

OBRAS PUBLICAS TRANSPORTES Y
COMUNICACIONESVIVIENDA Y ORDENACION DEL
TERRITORIO

INNOVACION EMPRESA Y EMPLEO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Gobernuak 500.000 euroko diru-laguntza baimendu du Abodi pistako eraikinerako

Iraupen eskiko estazioak zerbitzuak eta kirol materiala dauzka pista erabiltzen duten eskialarientzat

Lunes, 02 de mayo de 2011

Nafarroako Gobernuak, gaurko bileran, Nafarroako Kirolaren Institutuari baimena eman dio 500.000 euroko diru-laguntza zuzena Zaraitzu haraneko batzarrari emateko. Zenbateko hori Abodiko pistako eraikina birgaitzeko lehen fasea burutzeko izango da.

Birgaitu beharreko eraikina aspaldi Pikatuako

aduna zegoen lekuan dago eta, gaur egun, Abodiko iraupen eskiko estazioa da. Iratiko basotik batez beste 1.400 metroko altuerara dago. Pistak eskiatzeko 20 kilometro ditu eta Otsagabiatik heldu daiteke bertara, Larraura doan NA 211 errepidetik joanda. Hiru solairuko eraikina da: erdisotoa, beheko solairua eta lehen solairua ditu.

Obra proiektuaren arabera, beheko solairua edo solairu nagusia terrazaren maila berean dago eta zerbitzu nagusiak ditu: komunak, armairuak-taberna-kafetegia dituen gunea terrazara eta hegoaldera begira, eta sukaldea. Sukaldera kanpoko aparkaleku pribatuko plaza txiki batetik sar daiteke.

Erdisotoan kirol materiala errentan hartzeko lekua, botikina, erabilera anitzeko gela bat eta beharrezko instalazioen gelak daude. Bi solairuak barruko eskailera baten bidez daude konektatuta; hala ere, lursailaren berezko jaitsierak eta eraikinaren egiturak kanpotik ere zuzenean sartzeko aukera ematen dute.

Barruko eskailera horrek lehenengo pisura ere eramaten du. Han dagoen eremua kudeaketarako bulego edo bileretarako areto gisa erabil daiteke; ondoan apartamentu txiki bat dago eraikinaren kudeatzaileek ostatu hartzeko erabiltzen dutena.

Hiru solairuek zoru bero-emaila bidezko berokuntza izango dute, hortaz, polietilenoazko hodiak gordeko dituen zolarriaren gainean portzelana-gresezko zoladura jarriko da. Gela hezeak zeramikazko azulejuz estaliko dira sabairaino.

Barruko zurezko elementuak haritz egurrez egingo dira eta



Eskola umeak Abodiko pistan

kanpokoak lakadun aluminiozkoak izango dira. Kristalak laminadun beirazkoak izango dira.